

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

POLITIKAK ADINEKOAK ETA HAURREN SAILA

Garapenean Laguntzeko Zerbitzua

Garapeneko lankidetzarako urteko dirulaguntzen 2019ko deialdiko US atala ebaztea

Gasteizko Udalaren 2019ko dirulaguntzetarako deialdiak arautzeko oinarri orokorrak betez, iragarki honen bidez jakinarazten zaie interesdunei Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko uztailaren 29an hartutako erabakia. Bertan garapeneko lankidetzarako 2019ko dirulaguntzen deialdia (US atala) ebazten da. Hauxe dio ebazpenak:

Otsailaren 22an, Tokiko Gobernu Batzarrak 2019an garapenean laguntzeko proiektuetarako dirulaguntzak emateko deialdia arautzeko berariazko oinarriak onetsi zituen; lau ataletan banatuta dago deialdia. Horietako bat, US atala, honela dago definituta:

b. US atala: Azpiegituren eta ur- eta saneamendu-sistemen arloko proiektuak, eta proiektu teknikoak egitea. Diru-zuzkidura: 619.315,85 euro AMVISAREN ekarpenaren kargura eta 244.315,85 euro Gasteizko Udalaren ekarpenaren kargura.

Ataleko berariazko baremoak oinarrien 3. eta 4. eranskinetan daude jasota.

Joan den uztailaren 26an bukatu zen eskabideak aurkezteko epea, eta ondoren aipatzen diren proposamenak aurkeztu dira garaiz eta behar bezala; orotara 1.395.629,36 euro eskatzen da horien bidez:

Kolonbia-Euskadi elkarteak: akueduktu sistema eraikitzea Alta ibaiko nekazaritza komunitateetan (Planadasko udalerria, Kolonbia), 4. fasea: 190.000,00 euro; SERSO San Viator Euskalherria: edateko ura, Jutiapako 6 landa komunitatetan (Honduras): 190.000,00 euro; Manuel Iradier elkarte afrikarista: edateko urez hornitzeko sarea Léréyél inguruan (Senegal), 2. fasea: 181.000,00 euro; Nazioarteko Elkartasuna/Solidaridad Internacional, Arabako Medicus Mundi: edateko ura izateko giza eskubidea Diarin (Ginea): 189.998,83 euro; Arabako Medicus Mundi: ura eskuratzeko eskubidea, saneamendua eta ekitatea, Chotan (Peru): 190.000,00 euro; Bakearen aldeko Lankidetzarako Biltzarra: ura berdintasunerako eta elkartasunerako, Guatemala: 136.344,36 euro; ALBOAN fundazioa: ura bakerako, Kolonbia: 167.777,00 euro; Euskadi-Ekuador elkartasuneko elkarteak: ura eta saneamendua, Ekuador: 140.509,17 euro; Yoruba kultur elkarteak: lagelu ura, Nigeria: 10.000,00 euro. Eskatutakoa, guztira: 1.395.629,36 euro.

Deialdiaren oinarrien arabera, US atalean, oinarrien 1. eranskinean presentzia eta jardunari lotuta adierazten diren artetik betetzen dituen sei betekizunak zehaztu eta dokumentatu behar harko ditu entitate eskatzaileak. Aurkeztutako eskabide guztiek bete dute betekizun hori.

Proiektuek bete beharreko betekizunei dagokienez, Yoroba kultur elkarteak aurkeztutako eskabideak ez ditu betetzenn horietako zenbait, hauek zehazki: populazioari buruzko informazio nahikoa (kopurua, sexuen arabera datuak, kokapena); nahikoa informazioa, koherentzia eta bideragarritasuna; baldintzatzaileei, baliabideei eta behar teknikoei buruzko informazioa, eta jarraipenaren inguruko betekizuna. Horrenbestez, ez da eskabidea onartu.

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak AMVISARI helarazi zizkion proiektuak, balioets zituzten. Betekizunak betetzen dituzten zortzi proposamenak aztertu dituelarik, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak eskabide bakoitzaren fitxa zehatz bat bete, eta proiektuak balioetsi ditu, oinarrietan adierazitako baremazioari jarraiki. Hauxe izan da emaitza:

Kolonbia-Euskadi elkarteak: akueduktu sistema eraikitzea Alta ibaiko nekazaritza komunitateetan (Planadasko udalerrria, Kolonbia), 4. fasea: ehuneko 81,40; SERSO San Viator Euskalherria: edateko ura, Jutiapako 6 landa komunitatetan (Honduras): ehuneko 76,00; Manuel Iradier elkarte afrikanista: edateko urez hornitzeko sarea Léréyél inguruan (Senegal), 2. fasea: ehuneko 75,90; Nazioarteko Elkartasuna/Solidaridad Internacional Medicus Mundi Alava: edateko ura izateko giza eskubidea Diarin (Ginea): ehuneko 72,98; Arabako Medicus Mundi: ura eskuratzeko eskubidea, saneamendua eta ekitatea, Chotan (Peru): ehuneko 72,00; Bakearen aldeko Lankidetzarako Biltzarra: ura berdintasunerako eta elkartasunerako, Guatemala: ehuneko 59,00; ALBOAN fundazioa: ura bakerako, Kolonbia: ehuneko 58,00; Euskadi-Ekuador elkartasuneko elkarteak: ura eta saneamendua, Ekuador: ehuneko 36,00.

Deialdiaren oinarriek xedatzen dutenez, ezingo dira diruz lagundu 50 puntu baino gutxiago lortu dituzten proiektuak; hori dela eta, ezin zaio dirulaguntzarik eman Euskadi-Ekuador elkartasuneko elkartearen proiektuari.

Kolonbia-Euskadi elkartearen proiektuak lortu du puntuaziorik altuena, funtsean iazkoarekin bat datorrelarik, hasita dauden proiektuak amaitzea lehenesteko oinarrietan aurreikusitako 1,10 gehikuntza-koefizientea aplikatu baitzaio. AMVISAREN txosten teknikoan, ordea, bigarren fasea lehenengoaren osagarria dela adierazten da, eta lehenengoa bukatu ezean bideraezina dela; beraz, lehenengo fasean aurrera egiteko baldintza jartzea gomendatzen du. Finantzaketa bi funtsezko alderdi betetzeko baldintzapean jartzea ondorioztatzen du: batetik, tratatzeko lantegiaren definizio zehatz eta xeheagoa, eta horren egitura-kalkuluari dagokion partida ez sartzea; bestetik, 2018an finantzatutako fasean aurrera egitea.

Lehen fasea (2018ko dirulaguntzari dagokiona) oso atzeratuta dago, eta lanak ezingo dira 2019an burutu. Hori dela eta, dirulaguntza onetsiko balitz ezinezkoa litzateke oinarrietan jasotako betekizunetako bat betetzea: diruz lagundutako proiektua gauzatzeari beranduenez bi hilabeteko epean ekitea dirulaguntza ordaintzen denetik. Izan ere, emandako dirulaguntza ordaindu gabe geratuko litzateke 2019an, eta dirulaguntzak emateko partida orokorra izanik, nekez utz liteke gerakin gisa 2020ko aurrekontuan. Horiek horrela, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak egokitzat jo du aurten dirulaguntzarik ez ematea Kolonbia-Euskadi elkartearen proiektuaren bigarren faseari, lehen fasea ez baitago nahikoa aurreratuta.

Ehuneko 50eko puntuazioa gainditu dutelarik diruz lagun daitezkeen beste sei proiektuek eskatutako kopurua 1.055.120,19 euro da orotara; deialdirako erabil daitezkeen zenbatekoa, berriaz, 619.315,85 euro da, hau da, eskatutakoaren ehuneko 59. Eskatutako zenbateko handienak 190.000 eurokoak dira, eta ehuneko 59ko dirulaguntzek ez dute bermatzen proiektuen bideragarritasun ekonomikoa, GGKE eskatzaileek edo proiektu-kideek ez baitute aldea arrazoizko epeetan lortzeko aukerarik. Horrenbestez, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak proposatzen du puntuazio onena lortu duten lau proiektuak laguntzea diruz, eta bakoitzari eskatutakoaren ehuneko 82,47 ematea.

Zehazki, dirulaguntza hauek ematea proposatzen da:

SERSO San Viator Euskalherria: edateko ura, Jutiapako 6 landa komunitatetan (Honduras): 156.684,68 euro, AMVISAREN kargura; Manuel Iradier elkarte afrikanista: edateko urez hornitzeko sarea Léréyél inguruan (Senegal), 2. fasea: 149.262,77 euro, Gasteizko Udalaren kargura; Nazioarteko Elkartasuna/ Solidaridad Internacional: edateko ura izateko giza eskubidea Diarin (Ginea): 156.683,72 euro, horietatik 61.630,64 euro AMVISAREN kargura eta 95.053,08 euro Gasteizko Udalaren kargura; Arabako Medicus Mundi: ura eskuratzeko eskubidea, saneamendua eta ekitatea, Chotan (Peru): 156.684,68 euro, AMVISAREN kargura. Guztira: 619.315,85 euro, horietatik 244.315,85 Gasteizko Udalaren kargura eta 375.000 euro AMVISAREN kargura.

Kontuan hartu dira Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko otsailaren 22an onetsitako deialdiaren oinarri arautzaileetan xedatutakoak.

Kontuan hartu dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta orobat Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23. artikulua eta hurrengoak eta Gasteizko Udalaren Dirulaguntzak arautzeko Ordenantza, zeinari 2005eko ekainaren 17ko ohiko osoko bilkuran eman baitzion Gasteizko Udalbatzak hasierako onespena, eta 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAOn -5. zk.- argitaratu baitzen.

Halaber, kontuan hartu dira Gasteizko Udaleko Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren zeregina eta helburu estrategikoak.

Eskumenak eskuordetzeari buruz alkateak 2019ko ekainaren 21ean emandako dekretua, Udalaren Dirulaguntzak arautzeko Ordenantzaren 5.1 artikulua eta Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 127.1.g) artikulua ikusirik, Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saileko zinegotzi ordezkariak proposamen hau aurkeztu dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena. Garapenerako lankidetzaren arloko urteko proiektuetarako 2019ko deialdiko US atalera aurkeztu diren lau proiektu hauei dirulaguntza ematea, balioespen onena lortu baitute:

SERSO San Viator Euskalherria: edateko ura, Jutiapako 6 landa komunitatetan (Honduras): 156.684,68 euro, AMVISaren kargura; Manuel Iradier elkarte afrikanista: edateko urez hornitzeko sarea Léréyélinguruan (Senegal), 2. fasea: 149.262,77 euro, Gasteizko Udalaren kargura; Nazioarteko Elkartasuna/Solidaridad Internacional: edateko ura izateko giza eskubidea Diarin (Ginea): 156.683,72 euro, horietatik, 95.053,08 euro AMVISaren kargura eta 95.053,08 euro Gasteizko Udalaren kargura; Arabako Medicus Mundi: ura eskuratzeko eskubidea, saneamendua eta ekitatea, Chotan (Peru): 156.684,68 euro, AMVISaren ekarpenaren kargura. Guztira: 619.315,85 euro, horietatik 244.315,85 Gasteizko Udalaren kargura eta 375.000,00 euro AMVISaren kargura.

BIGARRENA. Eskabide hauek ezestea, zehazten dira arrazoiak tarteko:

Kolonbia-Euskadi elkarteak: akueduktu sistema eraikitzea Alta ibaiko nekazaritza komunitatetan (Planadasko udalerrria), 4. fasea: aurreko fasearen (2018ko proiektuaren) gauzatze eskasa; Bakearen aldeko Lankidetzarako Biltzarra: ura berdintasunerako eta elkartasunerako: funts nahikorik ez; ALBOAN fundazioa: ura bakerako: funts nahikorik ez; Euskadi-Ekuador elkartasuneko elkarteak: ura eta saneamendua: puntu nahikorik ez (ehuneko 50etik behera); Yoruba kultur elkarteak: Lagely ura: proiektuak balioesteko ezarritako betekizunak ez betetzea.

Interesdunei erabakiaren berri ematea, eta orobat jakinaraztea horren kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Deialdi honen barruan emandako dirulaguntzak ALHAOn argitara daitezten agintzea, iragarkian esleipenduna, emandako zenbatekoa eta Gasteizko Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzaren 14. artikulua xedatutako bestelako informazioa agertu beharko delarik iragarki horretan. Dagokion informazioa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratzea, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 20. artikuluekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko abenduaren 16an

Administrazio Zerbitzuetako burua
ROSANA URTARAN URTARAN